

María José Núñez Gozalo  
Francisco Javier Razquin Lizarraga  
Prebentzioko teknikariak. NOPLOI  
2015ko abendua

# Ebakitzeko tresna: **kuterra.**

## Arriskuak eta prebentzioko neurriak.


### Sarrera

Kuterra ebakitzeko eskuko tresna bat da, hainbat sektore eta lanetan baliatzen dena.

Ohikoa da eta ebakitzeko elementua ezin babestu denez, kuterra gehienetan arinak izaten diren hainbat istripuren kausa izaten da.

Nafarroako Foru Komunitatean 2014an zehar izan ziren istripuak aztertuta, ondorioztatu da gutxi gorabehera istripuen %2an kausa ebakitzeko eskuko tresna bat izan dela. Zehazki, ebaki horietatik %27a kuterrek eragindakoa izan zen.

Datu horrek erakusten du garrantzitsua dela aztertzea tresna honen erabilerak dituen arriskuak eta hartu beharreko prebentzio neurriak.



### Azalpena

Kuterrak bi zati ditu: kirtena eta ebakitzeko elementua, orria edo xafla.

Merkatuan hainbat kuter mota daude, besteak beste:

- Modelo estandarra: altzairuzko orri aldagarri eta bilkorra.
- Tamaina handiko modeloa, indar handia erabiltzea eskatzen duten lanetarako. Orri aldagarria du eta xafla ateratzeko segurua ere badu.
- Bisturi motako modeloa, ebaki txiki eta prezisio handikoetarako.
- Segurtasuneko kuterra, xafla bilkorrekin. Orria egokitu egin daiteke eta automatikoki biltzen da. Gomendagarria da hainbat material segurtasunez ebakitzeko.

### Erabileraren ondoriozko arriskuak


Kuterra erabiltzeari loturiko arrisku nagusia eskuetan eta gorputzeko beste ataletan ebakia egitea da, honako honen ondorioz:

- Tresna gaizki hautatzea.
- Tresnaren egoera kaxkarra.
- Ebaki behar den materialari egokitzen ez zaion tresna.
- Tresnaren erabilera desegokia (ebaki zailak, beste eskura edo gorputzera begirako egindako ebakiak, ebakitzea ez den bestelako erabilera, kuterrari gaizki eustea, ebaki bitartean eskuak behar ez den posizioan izatea, etab.).
- Kuterra uztea orria irekita duela.

## Hartu beharreko prebentzio neurriak


### Kuterra erabili aurretik

- Tresna seguruagoak (adibidez, aizturrak) erabiltzeko aukera aztertu.
- Kuterra ebaki behar den materialaren arabera eta ebakiaren ezaugarrien arabera hautatu. Horrela, ebaki zabarretarako aski lodiera duten orriak dituzten tresnak eta ebaki finetarako orri finoak dituztenak erabili behar dira.
- Fabrikatzaileak emandako segurtasun jarraibideak kontuan hartu.
- Beraz, fabrikatzaileak adierazten dituen lanetarako eta material motarako erabili behar da (inoiz ez erabili latak irekitzeko, bihurkin modura, puntzoi modura, etab.).
- Ez erabili kuterra esku zikin eta koipetsuekin.
- Kuter bilkorak erabili (ebakitzeo orria automatikoki biltzen da).
- Tresnaren orriak beti egon behar dira ongi zorroztuta eta ez dute okerrik izan behar. Ahoa galtzen dutenean edo koskaren bat dutenean ordeztu. Mantentze lan ona egin.
- Kirtena behar bezala egon behar da eta erresistentea izan behar da. Saihestu kirtenaren eta orriaren arteko loturan gabeziak dituztenak edo kirten hondatua, ertz zorrotzak edo azalera labainkorak dituztenak.
- Kuter inprobisatuak edo etxean egindakoak baztertu.
- Ez erabili kuterra beste langile batzuegandik hurbil.
- Behar bezala hautatu erabiliko diren banakako babes ekipoak, ebakietatik babesteko eskularruak eta babeserako betaurrekoak, partikulak edo objektuak begietan jotzeko arriskua dagoenean.



### Kuterra erabili bitartean

- Kontu handiz ibili, batez ere ebaki zailenetan edo pieza txikiak ebakitzean.
- Ebakia egiteko, atera soilik behar den orri zatia.
- Ebakia egiteko, esku bakarra erabili kuterrari eusteko. Ez dira erabili behar bestelako baliabideak indar gehigarri bat lortzeko.
- Behar bezala heldu erabili bitartean mugi daitzkeen pieza edo objektuak. Ebaki zailetan edo piezak txikiak direnean tresna egokiekin eutsiko dira, ez beste eskuarekin.
- Kuterraren norabidea ez da gorputzerantzakoa izan behar. Astinduak edo tirakadak saihestuko dira. Kuterra erabiltzen ez duen eskua ez da inoiz kuterraren ibilbidean jarriko.
- Era berean, ebakiko den pieza ez da erpuruaren gainean jarriko (ez da kuterra erabili behar kableak zuritzeko).
- Erabilera bakoitzaren ondotik, bildu beti orria kuter barnean (kuter bilkorrekin gertatzen den moduan).



## Bibliografia

- Recomendaciones para la prevención de riesgos en el manejo del cúter. FREMAP.
- Nota Técnica de Prevención 391. Herramientas manuales (I): condiciones generales de seguridad. 1995. urtea. Laneko Segurtasun eta Higienarako Institutu Nazionala

## Araudia eta informazio gehigarria

Langileek lan-ekipamenduak erabiltzeko segurtasuna eta osasun-xedapen gutxienekoak ezartzen dituen uttailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua.